

2019ko, 2020ko, 2021eko ETA 2022ko LAN-ESKAINZA PUBLIKOEI DAGOZKIEN LAN-KONTRATUDUN LANGILE FINKO GISA SARTZEKO ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO EZOHIKO ETA OHIKO PROZESUAK LEHIAKETA FASEAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren laugarren puntuaren jasotakoarekin bat (biak 2022ko urriaren 20koak) deialdi espezifiko guztietako alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen balorazioa egin eta gero eta, era berean, oinarri orokorrean 8.3 puntuaren hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko aurreikusten den azterketa bukatu ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuaren epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.– Lehiaketa eta euskara faseen deialdi espezifiko guztietako behin-behineko zerrenda argitaratzea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

BIGARRENA.– Zerrendak ikusgai egongo dira EHUko lan-eskaintzen atarian, (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp) hautagaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA.– Zazpi lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar izango da.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan

Epaimahaiko idazkaria